



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko azaroaren 8ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, azaroaren zortzian, zazpitan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko azaroaren 3a

Afitzatze eguna : 2022ko azaroaren 3a

6. ERABAKIA: KRISI EKONOMIKOAK HERRIAREN KONTUETAN DITUEN ONDORIOEI BURUZKO MOZIO BATEN ONARTZEA

(9.4 nomenklatura: Agiantzak eta mozioak)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio krisi ekonomikoak herriaren kontuetan dituen ondorioei buruzko mozio baten onartzea.

Auzapezak mozio horren aurkezpena egin eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak mozioa ONARTU DU.

Ortzaize herriko Herri Biltzarrak

Ekonomia eta finantza krisiak herriaren kontuetan, inbertsioak egiteko duen gaitasunean eta biztanleriaren beharrei egokitua den hurbileko zerbitzu eskaintza mantentzeko dituen ondorioez arrangura adierazten du.

Gure herri eta herri elkargoek sekula ezagutu ez duten egoera pairatzen dute:

Frantses estatuan, inflazioa %5,5ean baloratzen dute 2022 eta 2023rako, hots 1985 geroztik mailarik gorena, eta horrek urteko funtzionamendu gastuak 5 mila milioi euroz emendatuko ditu. Energiaren, elikagaien eta materialen prezioek emendatze ikusgarria eman dute, eta horiekin bakarrik herri eta herri elkargoen funtzionamendu aurrekontuak eta inbertsio gaitasunak kolokan dira. Bestalde, indize puntuaren %3,5eko emendatzea ezinbestekoa zen gure erakundeetako langileentzat, eta horrek 2,3 mila milioi euroko karga gehigarria ezarri die lurralde erakunde horiei.

Zuzkidurak lau urtez apalduz joan eta gero, 2014 eta 2017 artean, herrien baliabideak urritzen joan dira 2017an Funtzionamendu Zuzkidura-a izoztu denetik, eta herrien erdia baino gehiagorentzat banakako diru sartzeak urtez urte beheitzen joan dira.

Frantses estatuko finantza eta finantza publikoen programazio legeek hertsapen gehiago emanen dizkigute, CVAE delakoa kenduz, eta tokiko erakundeen esku hartzeetan muga berriak ezarriz, 15 mila milioi hemendik 2027ra, Cahors-ekoaren antzeko gastuen murrizte dispositiboarekin eta herri gehiago hunkituko dituen.

Gure herriei inposatu nahi dizkieten murrizketa horiek ez dira bidezkoak: gure erakundeek finantza osasun ona dute, eta beren etekin positiboekin defizit publikoa mugatzen dute, ordea.

Ez ditzagun iraganeko akatsak errepika: 2014tik, zuzkiduren apaltze guziek, 46 mila milioi eurokoak, inbertsioen gainbehera eragin dute, eta aldi berean Frantziako estatuak ez ditu bere defizitak tipitu: 2019koa, hots osasun krisiaren aitzinekoa, 2014ko maila berean egon da (BPGd-ren %3,5).

Krisi ekonomikoaren eraginen aitzinean, bertako erakundeen baliabideak Euro konstanteetan egonkortzea funtsezkoa izanzen da, biztanleriari zerbitzuak mantentzeko eta familien erosalmena laguntzeko.

Frantziako estatuan aurreikusten duten 2023ko hazkunde xumea dela-eta (%1), inbertsio publikoen %70 ordezkatzen duten tokiko inbertsio publikoak lagundu behar dira. Ezinbestekoa da garraioen, etxebizitzaren eta ekonomia osoaren ekologia trantsizioa laguntzeko.

Mundu mailako krisi honetan, agintzen gaituen Frantziako parlamentuak errealitatea den bezala ikusi behar du, eta herri eta herri elkargoei baliabideak eman behar dizkie krisi garaietan betetzen duten malguki eginkizuna bete dezaten.

Honela, Ortzaize herriak bat egiten du Frantziako Auzapezen Elkarteak bere Agintaritzari egiten dizkion proposamenekin:

- Funtzionamendu Zuzkidura 2023ko inflazioan indexatzea, herri blokeak 800 milioi euroko diru baliabideen galera berria ukan ez dezan. Funtzionamendu Zuzkiduraren eguneratzea ezinbestekoa da ere zuzkidura horren erreforma orokorra abiatzeko, bereziki justifikaziorik gabeko desberdintasunak murrizteko.

- zerga oinarrien indexazioa 2022ko azaroko kontsumo prezioen indize bateratuan mantentzea (IPCH) (+%6,8 aurreikusiak).

- edo CVAE ez kentzea, edo kentze horren baldintzak berrikustea. Balio erantsiari atxikia denez eta Sozietateen Zergaren etekinetatik kendu daitekeenez, CVAE ez da enpresen errealitateetik moztua, ez da ekoizpen zerga bat, bai ordea enpresen eta beren lurraldearen arteko lotura fiskala. Tokiko erakundeak ez dira zerga behartuen maila azkarraren arduradun: BPGd-ren %6,5 %44,3ren gainean.

CVAE kenduko balitz, orduan nahitaezkoa izango litzateke tokiko zerga batez ordeztea, zeinaren tasa eta oinarria tokiko erakundeek erabakiko lituzketen. Hautetsi elkarteekin diseinatzeke den dispositibo baten esperoan, Ortzaize herriak konpentsazio osoa baimenduko lukeen diru kentzeen apaltzea eskatzen du.

- tokiko ekintza oztopatzen duen dispositibo oro baztertzea. Hemendik eta 2027ra tokiko erakundeei inposatuko zaizkien 15 mila milioi euroko gastuen murrizketak, finean biztanleriari inposatuko zaizkie, diru hori ez baita zerbitzu publikoetara joanen.

- lur sailen antolamendu, egokitze eta eskuratze ekintzak FCTVA-ren oinarrian berriz sartzeari. Hori urgentziaz egin behar da, suteak pairatu dituzten herriek FCTVA berriz erabil dezaten lur kaltetu horien berriz antolatzeke.

- DETR eta DSIL-en esleipen prozedurak berritzea, finantza legean bozkatu diren kredituak kontsumitu ahal izateko. Eta bereziki, herriak edo ... herri elkargoak, proiektu deialdiak bertan behera uztea eskatzen du, eta DSIL-aren esleipenarentzat hautetsi batzorde baten osatzea eta boterea eskualdeko prefetaren eskuetatik departamenduko prefetaren eskuetara pasatzea. Logika bera segitu beharko litzateke «funts berdeentzat».

Ortzaize herriak eskatzen du, DETR eta DSIL-arentzako hautagaitza epea hasierako aurrekontuaren bozkaren ondotik finkatzea. Honela, denbora gehiago izango genuke Frantziako estatuko zerbitzuekin hitzartzeko eta aurkeztu diren proiektu guzien ikuspegia ukateko.

Azkenik eta gauzen sinplifikatzeko xedearekin, bi zuzkidurak meta daitezkeelarik, txosten bera baliatu ahal izatea eskatzen dugu bi zuzkidurentzat.

Energia krisialdiari dagokionez, Ortzaize herriak hautetsi elkarteek Frantziako lehen ministroari egin proposamenekin bat egiten du:

- **Urgentziaz energia-ezkutu baten sortzea**, tokiko erakunde guztiek elektrizitate prezio mugatua izan dezaten, beharrezkoa balitz itzuliko diren aitzin ordainketak eginez.
- **Tokiko erakundeei bermatzea energia hornikuntza kontratu berriengatik ez dutela finantza isunik izanen**, oso kontrako prezioetan izenpetu dituztenean.
- **Nahi duten erakundeei aukera ematea salmenta prezio arautuetara itzultzea (TRV)** – hots, merkatua lehiara ireki aitzineko prezioetara - zein izan ere beren neurria edo aurrekontua.
- **Honako erabakia departamenduko Prefetari eta parlamentariei igorriko zaie.**

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko azaroaren 8an

Auzapeza,

Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,

2022/12/05ean publikatu edo notifikatu ondoan,

Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/12/05ean.